

"Jende askok ez daki erregimen frankistak umeentzako barnetegi bat zabaldu zuela Abadiñon"



Elkarrizketa • Marta Calvo Larralde durangarrak Gerediagak ematen duen Durangaldeko Ikerlari Gazteen Beka irabazi zuen apirilean. Orain, erregimen frankistak Abadiñoko Ibaigoiti jauregian zabaldu zuen umeentzako barnetegiaren historia ikertzen dabil, Auxilio Social programaren bitartez ezarritako Nuestra Señora de Begoña egoitzaren historia, hain zuzen ere. Calvo dokumentuak ikertzen eta barnetegiari bizi izandakoen testigantza bila dabil gaur egun. • **2-3**



Mendilibarrek herrikideen eta gertuko omenaldia jaso du Zaldibarko jaietan

Zaldibar • Europan titulu garrantzitsu bi irabazi eta bere sorterriaren izena nazioartean zabaldu eta gero, udalak, Zaldibar Kirol Elkarteak eta herrikideek Mendilibar omendu dute herriko jaien hasieran. Jaiek urtean zehar egoterik ez duen jendeagaz egoteko tarte eskainiko diote entrenatzaile zaldibartarrari. • **5**



Murgoitio "sekula ez bezala sufritu" eta zilarra lortu du munduko txapelketan

Elorrio • Gontzal Murgoitio elorriarrak zilarrezko domina irabazi du mendiko lasterketen munduko txapelketan, Montenegron, 23 urtez azpiko mailan. Proba bertikalean laugarren izan da. Proba bietako emaitzak konbinatuta, hirugarren geratu da eta bronzia irabazi du. • **21**

Maialen Bilbao, onenekin dabilen frontenis jokalaria durangarra

Frontenisa • Buruz buruko eta binakako txapelketak irabazi ditu Mallabian. Gaztela eta Leongo ligan bigarren aurrelaririk onena izan da. • **20**

HOME SCHMIDT HOME



UZTAILAREN 1etik 31ra

UDA KO BEHERAPENAK

ZURE SUKALDEA **7.800€**-tik dena barne aurrera

Abadiño

“Abadiñoako Auxilio Social adoktrinamendu frankista ahalbidetzeko egoitza izan zen”

Marta Calvo Larralde (Durango, 1990) Gerediaga elkarteak ematen duen Durangaldeko Ikerlari Gazteen beka irabazi zuen apirilean. Erregimen frankistak Abadiñoako Ibaigoiti jauregian ezarri zuen umeentzako barnetegia historia ikertzen dabil

HISTORIA • EKAITZ HERRERA

Ibaizabal aldera ematen duen horma-ko azulejoari erreparatzea nahikoa da eraikinaren jatorria ezagutzeko. 1894an altxatu zuten, eta 1913an berritu. Jauregiak Ibaigoiti du berezko izena, baina Abadiñoako herritarrik gehien artean 'Hotela' modura ezagutzen da, Josu Mendizabal sukaldari bermeotarrak hotela zabaldu zuen-eta bertan, 2002an. Gaur egun eraikina hutsik dago, belar txarrak baino ez daude han. Edozelan ere, Marta Calvo Ikerlari durangarrarentzat, ez da ez Ibaigoiti, ez Zelaietako hotela. Bere aztergaiak Auxilio Social eta Nuestra Señora de Begoña egoitza dira. Hau da, erregimen frankistak gerraosteko lehenengo hamarkadetan Abadiñoako eraikin horretan ezarri zuen umeentzako barnetegia.

Abadiñoanrek Ibaigoiti jauregia edo 'Hotela' legez ezagutzen dute eraikina. Baina zuk esku artean duzun ikerketaren arabera, eraikinak beste izendapen bat eta beste erabilera bat izan zituela ere jakin duzu.

Nik topaturikoa Nuestra Señora de Begoña egoitza da, agiri batzuetan Virgen de Begoña modura ere agertzen dena. Erregimen frankistak Auxilio Social programaren barruan sorturiko barnetegi bat izan zen, eraikin honetan egon zena eta hirutik zazpi urtera arteko umei bideratuta zegoena. Ikerlari batzuek diote kontzentrazio espazio bat izan zela, bertan erabilitako metodologia eredu totalari lotuta zegoelako. Umeak ez ziren barnetegitik irteten, bertan hazten zituzten. Eta behin adin bat igarota, beste barnetegi batera eramaten zituzten.

Zein zen barnetegiaren funtzioa?

Nuestra Señora de Begoña doktrinamendu frankistaren hastapena ahalbidetzen zuen egoitza izan zen. Auxilio Socialek adin tarteka banatzen zituen bere egoitzak, eta hemengo kasuan hirutik zazpi urtera arteko umeak zeuden. Kantu-jolasen bitartez, erregimenari loturiko balioetan hezten zituzten, balio erlijioso eta militarretan.

Umeak doktrinatzeko tresna bat izan zen, beraz.

Bai. Adinari egokituriko doktrinamendu zentro bat izan zen. Adinez nagusiagoak ziren gazteekin, beharbada, bestelako portaera, jarrera edo eskakizunak izango zituzten. Baina umeekin jaunartzea izaten zen helburu nagusia.

Horrelako egoitzak ohikoak ziren?

Abadiñoako Bizkaian sorturiko lehenengoetariko bat izan zen. Dakigunagaitik, Bizkaian mota honetako hamar bat egoitza egon ziren. Besteak beste, Bilbon, Sodupen, Mungian eta Urduñan.

Eta zergaitik kokatu zuten era honetako egoitza bat Abadiñoan?

Ez dakigu. Erregimen frankistak sasoi hartan ingurune polita zela arrazoitzen zuen, landa eremuan kokatuta zegoela, eta egokia zela barnetegia egiteko. Baina ez dakigu arrazoi zehatza zein den. Dakiguna da hau egoitza izan baino lehenago etxea izan zela. Jabeari etxea hartu eta okupatu egin zioten, gero erregimenak bere zerbitzurako erabili zezan. Etxeko andreak auzitara eraman zuen kontua eta makina bat epaiketa izan zuen jauregia berriro ere berreskuratzeko. Arrazoa nahiko arin eman zioten arren, Auxilio Socialek argudiatu zuen ez zuela

“Era honetako egoitzetan zeuden umeen profil nagusia gerran hildakoen eta emakume alargunen umeena zen”

umeak lekualdatzeko beste lekurik, eta, horrenbestez, beharizan hori zegoen bitartean egoitzan egongo zirela. Azkenean, familiak etxea berreskuratzea lortu zuen. Herriko bizilagunek diotenez, familia euskaltzalea zen. Emakume jabeak Frantziara alde egin behar izan zuen.



Marta Calvo Larralde
Ikerlaria
DURANGO | 1990

Noiztik nora egon zen martxan barnetegia?

Zalantza asko dago, Auxilio Socialek zabaltzen zuen informazioa propagandari loturikoa zelako. Ez dago datu zehatzik. Adibidez, sasoi hartako albiste batean jasorikoaren arabera, egoitza 1939an zabaldu zuten. Beste albiste batek dio 1940an inauguratu zutela, baina, jakina, inaugurazioak eta zabaldu zuten egunak ez dute zertan bat egin. Itxierari dagokionez ere, beste data bi daude: 1951 eta 1953. Lehenengo aukerak zehatzagoa dirudi, informazioaren arabera umeak urte hartako hilabete eta egun zehatz batean lekualdatu zituzten-eta Abadiñoatik Sodupera. Baina lekualdaketa hori 1953an egin zela dioten dokumentuak ere badira.

Denbora tarte horretan, zenbat ume pasatu zen hemendik?

Ez dakigu zehatz. Dakiguna da 65 bat ume egoten zirela hemen aldi berean. Agiri batek dio zentroaren lehenengo egunetik 80 ume zeu-

delaren hemen, baina gezurra da. Izan ere, badaude inaugurazioko argazkiak, eta horietan ez dira inondik inora ere 80 ume agertzen. Hasieran ume gutxiago zegoen. Bertako ume kopurua 45 eta 65 artean kokatu dezakegu.

“Doktrinamenduaren helburu nagusia jaunartzea zen, baina hemengo umeek ez zuten jaunartzea San Trokaz egunez egiten”

Zein zen barnetegiaren zeuden umeen profila?

Auxilio Socialek ume abandonatuak zirela esaten zuen. Haien diskurtsoaren arabera, gorriek eta separatistek abandonaturiko umeak. Horrez gainera, umeetarikozko batzuk umezurtzak zirela ere

esaten zuten. Guk beste egoitza batzuetan ikerturikoagaitik dakigunez, umeetarikozko batzuk gerrako umeak izan ziren. Hau da, Euskadiko gobernuak milaka ume atera zituen hemendik, baina frankismoak, Vatikanoren laguntzagaz, ume horietarikozko asko ekarri zituen bueltan hona. Eta eurretarikozko denak ez ziren berriro ere gurasoekin batu, batzuk egoitzetan geratu ziren. Hori, batetik. Bestetik, preso politikoen eta sozialen seme-alabak daude. Abadiñoan ez dugu horren zantzurik topatu, baina Durangon eta Elorrioren badira dokumentuak ume horiek nora bideratzen zituzten erakusten dutenak. Eta, azkenik, profil nagusia dago, gerraosteko miseriari loturiko umeena. Eta atal honetan, gerran hildakoen eta emakume alargunen seme-alabak daude. Zeintzuk ziren alargun horiek? Bando jakin bateko alargunak, jakina. Sasoi hartan emakumeek zuten laneratzeko zailtasun guztiekin, amek, umeekin aurrera

egin ezinda, barnetegira eramaten zituzten. Erakundeak esaten zien umeek ondo jan eta ikasi egingo zutela. Baina, dakigunez, han ez zuten ikasten. Bilbon, adibidez, argi geratu zen umeak laneratze prozesuetan erabili zituztela, lan esplotaziorako. Labe garaietan, adibidez. Eta ikerlari askok jasota daukatenez, umeek egarrria eta gosea pasatzen zituzten.

Umeek bazuten traturik inguruko herritarrekin?

Bizilagunek dioskuenagaitik, ez. Eskolak barruan ematen zituzten, eta eraikinak gaur egungoak baino lur gehiago zuen. Atzealdean, gaur egun etxebizitzak dauden tokian, lur arlo zabala zuen. Umeak ez ziren eremu horretatik irteten. Beharbada jaunartzea izango zen salbuespena. Jaunartzea zen egoitza honen helburu nagusia. Abadiñon, ohituraz, San Trokaz egunez egin izan dira jaunartzeak, maiatzak 15. Baina egoitzako umeek ez zuten egun horretan egiten. Beste data batzuetan egiten zuten. Bestalde, batzuek diote egoitzako langileetarikoz batzuk Abadiñokoak zirela, baina umeenganako traturik ez da inon aipatzen.

Zelan zeuden antolatuta egoitzako egunerokoa eta funtzionamendua?

Hainbat atal zegoen, eta langileen artean emakumeak ziren nagusi.

Batetik, zuzendaria zegoen. Erregimenak aukeraturiko konfiantzazko pertsona bat izaten zen ohikoa, gehienetan Sección Femeninako kide sutsuren bat. Gero Sección Femeninako beste kide batzuk zeuden, erizain lanetan, adibidez. Argazkietan agertzen dira. Horrez gainera, gordetzaille edo *guardadora* deiturikoak zeuden. Horiek umeekin egoten ziren. Maistra bat

Historia aztertzerakoan, zergaitik ez dugu umeen historia aintzat hartzen?

egoten zen ume guztientzat, eta, azkenik, abadea. Dena dela, ez dakigu zenbat langile ziren guztira. Baina badakigu bigarren etxe batean egoten zirena, hainbeste ume gaz ez ziren kabituko eta. Bigarren etxe hori zein izan zen ez dakigu.

Barnetegian bizi izandako herritarren baten berririk baduzu?

Horren atzetik gabiltza, ea testigantzarik topatzen dugun. Horrek aberatsago bihurtuko luke ikerketa. Adibidez, han barruan bizi bal-

dintzak zelakoak ziren ezagutzeko. Bertan bizi izandako emakume baten alaba topatu dugu, baina, tamalez, ez dute informazio askorik. Ez dakite ama zergaitik egon zen han, zein zen han egoteko arrazoia. Bestalde, han bizi izandako gizonezko baten atzetik gabiltza.

Ikerketa amaiturikoan, zer topatuko dugu?

Herri memoriari loturiko zeozer atera behar dugu hemendik. Jende askok ez du hemen egon zen egoitzaren berririk, eta bitxia da, kuriooa. Abadiñoko biztanle batzuek esan didatenez, egoitzan bizi izan ziren umeetarikoz batzuk bizileku izan zuten eraikina ikustera etorri ziren handik urteetara. Eta hara, hor aukera bat galdu dugu. Badugu zer hausnartu. Ez dakit instituzioetatik, ez dakit herritik, baina hor memoriari loturiko zeozer egin behar dugu. Eta ez nabil Abadiñori buruz. Egoera orokorra da. Burura datorkidan beste hausnarketa bat umeena da. Historia aztertzerakoan, zergaitik ez dugu umeen historia aintzat hartzen? Interesgarria deritzot. Sarri aipatzen ditugu gudariak, hildakoak. Orain, apurka-apurka bada ere, emakumeen kartzelei buruz berba egiten hasi gara, baina badirudi umeen historia atzetik datorrela. Hor ere asko dago aztertzeko.



Egoitzako umeak jaunartze egun batean. GERMAN ZORRAQUIN FUNTSA, GEREDIAGA.

Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



**Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira**

**Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!**



anboto

Durango Zabalarra eskolan sukaldeak egiten eta jantokia handitzen hasi dira

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 1.012.000 euroko aurrekontua du lanak gauzatzeko; sukalde eta jantoki berriak amaitzeko, 14 hilabete beharko dituztela aurreikusi dute



Udal arduradunak eskola komunitateko ordezkariekin.

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila astelehenean hasi zen Durango Zabalarra ikastetxean sukaldeak egiten eta jantokia handitzen. Durango Udalak jakinarazi duenez, lanek 14 hilabete irautea aurreikusi dute. Behe-solairuari modulu berri bat gehituko diote, etorkizunean

"janaria bertan prestatzeko eta kontsumitzeko". Sukaldeak gainera, biltegia, sukaldeko behar-gintzako eta begiraleentzako aldagelak, hondakinen eremua, hozkailu-gela eta komun berriak egingo dituzte. Obrak egiteko aurreikusi duten epea hamalau hilabetekoa da, eta, Durango Udalak

azaldu duenez, jantoki zerbitzua bermatuta egongo da lanek irauten duten bitartean. Hezkuntza Sailak ia 1.012.000 euroko aurrekontua prestatu du lanak gauzatzeko.

Mireia Elkororibe alkatearen berbetan, "Proiektu hauek ez dira azpiegiturretan egindako inbertsioa bakarrik; gure etorkizunean, gure

ikasleen osasunean eta segurtasunean, eta Durango eskaintzen dugun hezkuntzaren kalitatean egindako inbertsioa dira", adierazi zuen Mireia Elkororibe Durango aldateak. Hezkuntza Sailagaz eta hezkuntza zentroekin "lan-

2025ean Frai Juan Zumarraga institutuko frontoia berriztuko dute; egitura eta teilatua aldatuko dituzte

kidetza estua" dutela gaineratu zuen, eta udala pauso "sendoak" ematen dabilela "instalazioak modernizatzeko, eta ongizatea, bizikidetzeta eta ikaskuntza optimoa sustatuko dituen hezkuntza ingurua sortzeko".

Institutuko frontoia

Bestalde, Frai Juan Zumarraga institutuko frontoia berriztuko dute. Egitura eta teilatua aldatuko dituzte. Horrez gainera, harmaila kenduko dute. Lan horiek datorren urtean hasiko dituztela jakinarazi zuten udal arduradunak. Eremua "ikastetxeko patioan hobeto integratzea" da helburua, "ingurune zabalagoa, garbiagoa eta seguruagoa sortzeko". Lan horiek lau hilabete iraungo dute.

'Kontaidazu Durango' ibilbide turistiko autogidatuaren baldosak berriztu ditu Udalak

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Udalak Kontaidazu Durango ibilbide turistiko autogidatuaren baldosak berriztu ditu. Orain 12 urte ipini zituzten eta ez zuten euren funtzioa behar zen moduan betetzen. Azaldu dutenez, "hondatuta" zeudelako. Turismo Bulegoan eskaintzen den bisita autogidatuak 14 geltoki ditu eta Durango historia eta ondarea ezagutzeko aukera ematen die bisitari eta turistei, "modu atsegin eta irisgarrian". Interes historikoa

Bisita autogidatu honek 14 geltoki ditu eta Durango historia eta ondarea erakusten ditu

eta kulturala duten tokiei buruzko informazioa ematen da bertan, hainbat hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, katalanez, ingelesez, frantsesez eta alemanez. Turismo Bulegoan eskura dagoen plano turistikoan, baldosa gorri berriekin seinaleztaturiko geltokiak adierazten dira, eta audioak WhatsApp bidez lortu daitezke. Informazioa lortzeko edo erreserbak egiteko, turismodurango.net atarian sartu daiteke.

Durango Hezkuntza Foroak hezkuntzarako eta bizikidetzarako "funtsezko" dekalogoak aurkeztu du

DURANGO • A.B.

Durango Hezkuntza Foroak herri inklusiboa, segurua eta errespetuzkoa sustatzeko helburuagaz diseinaturiko dekalogoak aurkeztu du. Dekalogoak ikastetxe, guraso elkarte, kirol klub eta orde-

kari politikoen arteko elkarlanaren emaitza da. Foroa 2022an hasi zen lanean, eta herritar guztiei zuzenduriko dekalogoak diseinatzeko aritu da iaztik, "Durango hezkuntzarako eta bizikidetzarako funtsezko dokumentua sendotzea" lortu arte.

Hauetxek dira dekalogoaren helburuak, besteak beste: Durango herri segurua izatea; natura, nortasuna eta ekosistema zaintzea; pertsonen duintasuna eta tratua onartzea; elkartasuna, parte-hartzea eta baterako lana bultzatzea; beharrei erantzutea eta komunitatearen lorpenak elkarregaz ospatzea. Dokumentu hori zelan erabili eta herritar guztiei zelan ezagutarazi erabakitzea izango da hurrengo pausoa.



Durango Hezkuntza Foroak aurkeztu zituzten dekalogoak.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko uztailearen 5a
22. urtea - 986. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Plateruena kultur aterpea.

Plateruena kultur aterpea erabiltzeko prezio publikoak onartu dituzte

Udalak kontzertuetarako zein kultur ekintzetarako prezioak erabaki ditu; %50eko eta %75eko hobariak jaso dira

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Udalak Plateruena kultur aterpearen prezio publikoak onartu ditu, eta horrek herriko kultura estrategian duen garrantzia azpimarratu du. Hartara, aretoa kontzertuak emateko, arte eszeniko eta kulturalak egiteko eta publiko gabeko ekitaldiak antolatzeke alokatu ahal izango da, kasuan kasu %50eko eta %75eko hobariak aurreikusita. Jon Sergio kultura zinegotziak azken udalbatzarrean nabarmendu zuen prezio "xumeak" direla, asko landurikoak.

Plateruena eta Landako Gunea sustatzeko gobernu taldeak hasitako plana aurten osatuko da eta 2025ean ipiniko da martxan behin betiko, Sergiok iragarri zuenez. "Plateruena Durango, Durangaldean, eta Euskal

Herrian kokatu eta kultur erreferente bihurtzea" da helburua, eta "kontzertuak emateko tokia ez ezik, ekoizpen eta musika proiektuen faktoria" bilakatzea. EH Bildu prest dago proiektu

Plateruena eta Landako Gunea sustatzeko plana aurten osatuko da; 2025ean ipiniko dute martxan

"ilusionagarri" eta "anbiziotsua" sortzeko elkarlanerako, eta aurretik garatu diren prozesu parte hartzaileen ondorioak aintzat hartzeko duen konpromisoaz galdetu dio gobernu taldeari. Herriaren Eskubidea taldeak dio egungo proiektua ez datorrela bat iazko prozesu parte hartzailetik ateratako ereduagaz.

Ia 100.000 euro erabiliko dituzte Durango kaleetan asfaltoa konpontzeko

Udalak Mugikortasun Seguruko programa hasi gura du

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Udalak ia 100.000 euro erabiliko ditu hainbat kaleko asfaltoa konpontzeko eta abiadura murrizteko diren pasabide goratuak egiteko. Lan horiek lau hilabete iraungo dute eta udalak

zabaldu du dagoeneko lizitazio prozedura. Bestalde, irailetik aurrera martxan ipiniko den Mugikortasun Seguruko programa garatzeko lizitazio prozesua ere zabaldu du udalak, 60.500 euroko aurrekontuagaz.



Jose Luis Mendilibar.

"Jaiek urtean zehar egoterik ez dudan jendeagaz egoteko tartea eskainiko didate"

Jose Luis Mendilibarrek bere herrikideen omenaldia jaso du Zaldibarko jaien hasieran. Egunotan bere sorterrian egongo da, inguruko eta gertuko epeltasunaz gozatzen

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Etenik bako lanaren ondoren, Jose Luis Mendilibar futbol entrenatzaile zaldibartarrak garaipenik ederrenen aparretan egonkortzea lortu du. Iaz Europa Liga irabazi zuen Sevilla taldeagaz, eta aurtengo maiatzean Konferentzia Liga irabazi du Olympiakos talde greziarragaz. Orain, bere sorterriko jaiak direla eta, omenaldia egin diote udalak, Zaldia Kirol Elkartek eta herrikideek. Egunotan, tarte batez bada ere, herriko jaietako gertuko konpainiaz gozatuko du, Greziara bueltatu eta lanari berrekin aurretik. (Zaldibarko jaien egitaraua [anboto.org](#) atarian eta astekari honetako Agenda atalean, 17. orrian).

Zaldibar jaietan murgilduta dago. Gogotsu zaude ospakizunetarako?

Egia esanda, jaietan ez naiz askorik egoten. Denboraldiaurre sasoia da hau, futbol taldeagaz lanean ibiltzekoa, eta, horrenbestez, herriko jaiak izaten direnean, kanpoan egoten naiz normalean. Baina aurten bai, aurten herrian egongo naiz jaiek irauten duten bitartean, denboraldiaurrea datorren astean hasiko dugu eta.

Jaiek futbolaren presiotik kanpora egoteko modu bat eskainiko dizute?

Urtean zehar ez dut hurbilekoa den jende askogaz egoteko aukera handirik izaten, eta jaiek, hain

zuzen ere, horretarako tarte bat eskaintzen didate. Momentutxo batez bada ere, futbola eta lana ahaztu, eta zeozer hartzen dut neure inguruko jendeagaz. Edozelan ere, ez pentsa, jaietan ez dut gauza handirik egiten. Jaiak jendeagaz egoteko aprobetxatzen ditut. Adibidez, pilota partiduak badaude, frontoira joatea gustatzen zait. Kuadrillagaz egoteko ere aprobetxatzen ditut jaiak.

Aurten, gainera, jaietako ikurretari bat zara. Herritarrek, Zaldia Kirol Elkartek eta udalak txalo zaparrada batez hartu zaituzte eta omenaldia egin dizute.

Azken urteotan behin baino gehiagotan esan didate inoiz omenaldixoren bat egitea tokatuko zela edo. Eta hara, tokatu da. Aurten, udalak eta Zaldia Kirol Elkartek omenaldia egitea adostu dute. Europako garaikur bi irabazita, momentu ona delakoan nago. Neure partetik, herritarrek, Zaldia Kirol Elkartea eta udala eskertu gura ditut. Denei esker ona adierazi gura diet. Izan ere, jende askok jarraitzen du egiten dugun lana, itxaropen moduko batez gainera, eta orain errekonozimendu hori eskertzea dagokigu.

Olympiakosegaz eta Sevillagaz irabazitako garaikurrek egundoko

ilusioa eragin dute. Zuk zelan bizi izan dituzu garaipenok?

Sorpresa handia izan dira. Batzuetan pentsatzen dut entrenatzaile modura bizi beharreko dena bizi izan dudala jada, eta ez dela ezer berririk etorriko. Baina bizitzak beti eskaintzen dizu zeozer berria eta lantzean behin harritu egiten zaitu. Niri azken momentura arte gorde dit hori. Orain agertu da, eta lortu dugu. Lana egin behar da horretarako, jakina, lanik barik ez dagoelako ezer. Baina itxaropenari ere eutsi behar diogu, zeozer etorriko den esperantzari.

Jaiek amaituta lanera bueltatuko zara, denboraldiaurrea prestatzera. Zein plan duzu esku artean?

Martitzenean Greziara bueltatuko gara eta eguaztenean denboraldiaurrea hasiko dugu. Lagunarteko partiduak jokatuko ditugu lehenengo, eta abuztuaren 18an denboraldia hasiko dugu. Denboraldiaurrea ondo landu gura dugu, gero denboraldia ondo irten dadin. Horixe izango da gure lana. Olympiakos talde handia da Grezian eta helburua liga irabaztea da. Horixe da helburua. Horrenbestez, prestatuntzak horri begirakoak izaten dira. Ezin ditugu partiduak makal hasi; gogor lan egin behar dugu. Eta, Europari dagokionez, bertan jokatzea ere badugu helburu. Lehia gogorra izaten da, beti da gatx irabaztea, baina sailkatzea lortu eta aurrera egiten badugu, horretarako aukera sortu daiteke.

Elkarrizketa amaitzeko, utziko diezu mezu bat irakurleei? Zer esango zenieke zaldibartarrei?

Jaietan ondo pasatu dezatela, jaietan horixe da inportantea eta. Lau egun izango dira eta horren ondoren oporrek etorriko dira. Eta oporretan ere, ondo pasatu denok. Hori bai, horiek amaituta, lanera, hori ere bada inportantea eta.

Arregi Campo familiak Izurtzako argazki zaharrak dohaintzan utzi dizkio Gerediaga elkarteari

Izurtzan pasatzen zuten uda, Mendibe baserrian; familia argazkiez gainera, Izurtzako paisaiak eta ohiturak islatzen dira

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Arregi Campo familiak Izurtzako argazki zaharrak dohaintzan utzi dizkio Gerediaga elkarteari. 1953tik 1959ra arteko argazkiak dira, eta bereziki baliotsuak dira Izurtzako argazki zahar gutxi dituztelako. Familia argazkiez harago, Izurtzako lekuak, jendea, ospakizunak, ohiturak eta bizimodua erakusten duten argazkiak dira.

Arregi Campo familiak Izurtzan pasatzen zuen uda, Mendibe baserrian; Bittori Ortuzar Larrabe (Izurtza, 1878) etxe amama izan zen, eta Bilbora ezkondu eta gero, 1967an hil zen. 1953 eta 1959 bitartean Izurtzan igarotzen zituzten udak. Garai horretan, Mendibe Ojanguren familia zen Mendibe baserriaren jabea. Amama Bittorigaz Arantzak, Begoñak eta Gabriellek ere pasatzen zuten uda bertan. Eurekin batera, Gabriel Arregi Garaigordobil aita ere izaten zen Izurtzan, eta aipaturiko urteetako sei udaldietan bera izan zen argazkilaria. "Familia argazkiak nagusitzen badira ere, Izurtzako paisaia,

ohiturak, lekuak eta ospakizunak ezagutzeko aukera ona eskaintzen du Arregi Campo familiaren funtsak", Gerediaga elkarteak ohar

batean azaldu duenez. Gerediaga elkartearen dokumentazio-zerbitzuan jaso duten seigarren funtsa izan da hau. Digitalizazio lanak

amaiturikoan, argazkien fitxak sortu eta elkarteko webgunean sareratzten dituzte, edonork kontsultatu ahal izateko.



Arregi Campo funtsako argazki bat. GEREDIAGA ARTXIBOA



D'Capricho taldea.

D'Capricho taldeak musika kubatarra ekarriko du Mañarira uztailearen 19an

MAÑARIA • J.D.

Habanako (Kuba) Danieuris eta Daniellis Moya Ávila ahizpek osatzen duten D'Capricho taldeak kontzertua emango du Mañariko plazan uztailearen 19ko barikuan, 20:00etan. Horrela, aurreko urteetan legez, Mañariko kaleak jarduerekin girotzen jarraitzen du udalak.

Ahizpa biek hartu-emanan dute Euskal Herriagaz. 2010ean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Ongi etorri, Pupu eta Lore* disko bost kantetan parte hartu zuten. Euren erreperatorioan Joseba Sarrionandia, Leire Bilbao, Xabier Lete eta Miren Agur Meabe sortzaile euskaldunen abestiak ere badaude.



Otxandio Mainondo eskola.

Mainondo eskolako leihoak aldatuko dituzte, Otxandion

Udalak 35.000 euroko aurrekontua du lanetarako; Eusko Jaurlaritzatik 21.000 euroko laguntza lortu dute

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Otxandio Udalak Mainondo eskolako leihoak aldatuko ditu eskola umeak oporretan daudela aprobetxatuta. Horretarako, 21.000 euroko diru laguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzatik. Lanak egiteko, 35.000 euroko aurrekontua dute lotuta. Bada,

Hezkuntza Sailatik lorturiko diruagaz lanen %60 finantzatuko du udalak. Gaur egun eskolan dauden leihoek sortzen dituzten "arazoei" irtenbidea eman gura diete lan horiekin, azaldu dutenez. Lanak amaituta egongo dira ikasturte berria hasten denerako.

Atxondoko Udalak komun publikoa zabaldu du Apatan, frontoi ondoan

Biltegi modura erabiltzen duten lokaleko zati bat komun publiko bat egiteko eraberritu du udalak, eta erabilgarri dago

ATXONDO • J.D.

Atxondoko Udalak komun publiko bat egin du Apatamonasterioko herrigunean. Plazan dago, pilotalekuaren ondoan. Udal iturriek azaldu dutenez, biltegi modura erabiltzen duten lokaleko zati bat eraberritu dute komuna egiteko. Lanak amai-

tuta, joan zen astean zabaldu zuten, herriko jaietan, herritarrek orduan ere erabilgarri izan zezaten zerbitzu berria. Udal arduradunek adierazi dute herritarrek urte askoan egindako eskaria dela, eta udaletik ere egunerokotasunean beharrezko zerbitzu modura ikusten zutela.



Komun publikorako sarrera, frontoirako sarreraren ondoan.

Axpeko errogatiba eguna ospatuko dute uztailearen 13an, Larranoko ermitan

ATXONDO • J.D.

Axpetarrek ohitura dute Larrano mendi lepoan dagoen Santa Barbara ermitara errogatiba egiteko. Aurtengo aldia uztailearen 13an izango da. Oinez doazeneztat 08:30ean ipini dute ordua, Axpeko plazan.

Larranon hamaiketako egingo dute, eta ondoren meza egongo da Santa Barbara ermitan

Larranon hamaiketako egingo dute, 11:00etan, eta segidan meza egongo da Santa Barbara ermitan. Ondoren, Axpen, makila txapelketa egongo da, 14:00etan, eta gero bazkaria Aitz Azpi elkartean. Izen-emaitea uztailearen 10era arte egin daiteke, telefono hauetara deituta: 667 485 164 eta 667 485 436.

UDAKO 10.ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo
bidali 688635041 zenbakira
irailaren 15era arte

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Info+ www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
informatika & telekomunikazioak


ERRIGORA


Garaiiko
Landetxea

Berrizko eta Garaiko alkateek anbulatorioko profesional kopurua leheneratzea eskatu dute

Orlan Isoird eta Erramun Osa alkateek hiru eskari batzen dituen gutuna helarazi diote Martinez Osasun sailburuari

BERRIZ/GARAI • EKAITZ HERRERA

Berrizko Orlan Isoird eta Garaiko Erramun Osa alkateek hiru eskari batzen dituen gutuna helarazi diote Alberto Martinez Osasun sailburuari izendatu berriari. Berrizko anbulatorioko profesional kopurua "albaitik arinen leheneratzea", Garaiko osasun arreta berraztertzea eta bilera bat

egitea eskatu zioten. Alkate bien iritziz, Osakidetza gaur gaurkoz Berrizko anbulatorioan eskaintzen duen zerbitzua "kezkatzeko modukoa" da, "milaka pertsona artatu behar dituen" osasun zentroak "egun esleituta dauzkan baliabideak ez direlako nahikoa kalitatezko osasun zerbitzua eskaintzeko". Ekainetik hona, hiru

medikuetatik bakarra geratu da, eta egoera "nabarmen eskastu" dela iritzi diote Orlan Isoirdek eta Erramun Osak. Gaineratu dutenez, egoera horrek inguruko beste osasun zerbitzu batzuetara joatera "behartu" ditu udalerrri bietako herritarrak.

Konpromisoak Garain

Garairen kasuan, 2015etik ez dute osasun arretarik jasotzen herrian. Hartara, garaitarrek Berrizko anbulatoriora joan behar izaten dute. Gotzone Sagardui aurreko sailburua Garaiko alkateagaz batzartu zen ekainean eta bilera horretan herrian osasun arreta berrezartzeko konpromisoa hartu zuen. Ildo horretatik, Garaiko Udalak konpromiso horiei eusteko eta pausoak ematen hasteko eskatu dio Osasun Sailari.



Ur txorroen parke berria.

Berrizburuko ur txorroen parke berria zabalik dago eguaztenetik

Parke berriak hainbat gune batzen du ur txorroekin jolasteko; besteak beste, simulaturiko erreka bat

BERRIZ • A. M.

Eguaztenetik zabalik dago Berrizburuko ur txorroen parke berria; txorroak 10:00etatik 20:00etara bitartean erabili daitezke, astelehenetik domekara bitartean. Espazio berriak zurrusta bertikalak eta helize formakoak ditu, eta baita *Water Journey-Tide pool* legez izendatu dutena ere. Berdegune eroso bat, itzalkinak, bankuak eta paperonziak ere ipini dituzte, gunea atsedeneku modura aton-

tzeko. Bestalde, komun publikoa ipini bitartean, futbol zelaiko komunak erabili daitezke. Apirilean hasi zituzten lanak, eta, arlo ekonomikoari dagokionez, lanek ia 300.000 euroko aurrekontua izan dute guztira; lehenengo faseak 223.600 euroko aurrekontua izan du (horietatik ia 56.000 Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu ditu), eta bigarren faseak 50.000 euroko gastua ekarri dio Berrizko Udalari.



Herritarrak protestan, Berrizko anbulatorio parean.

Igor Fernandez zornotzarraren kartelak iragarriko ditu jaiak

Igor Fernandezek Zornotzako Udalaren enkarguz egin du kartela, eta komiki batean islatu ditu jaietako jarduerak nagusiak; 2006ko jaiak ere Fernandezek lan batek iragarri zituen

ZORNOTZA • A. M.

Igor Fernandezek Zornotzako Udalaren enkarguz egindako kartelak iragarriko ditu Zornotzako jaiak. Fernandez zornotzarra da eta El Jueves aldizkariako zuzendaria da gaur egun. "Kartelaren enkargua jaso nuenean aton pentsatu nuen komiki itxura ematea. Batetik, oso eroso sentitzen naizelako, eta, bestetik, duen testu luzea binezetan banatzea eraginkorragoa egiten zitzaidalako", azaldu zuen egileak ohar baten bitartez. Kartelak jaietako jarduerak nagusiak batzen ditu. 2006ko jaiak iragarri zituen kartelaren egilea ere izan zen Fernandez, eta orduko hartan herriko eraikin eta eskulturetan oinarritu zen.



Koldo Bilbao zinegotzia eta Ainhoa Salterain alkatea.


Berrio-Otxoa eguna ospatu dute Elorri, eguenean

Asteburuan ere egingo dituzte ekitaldiak ospakizunerako

ELORRIO • A. M.

Elorriarrek herriko zaindari Berrio-Otxoa omendu dute aste honetan, uztailearen 4an. Ohikoa duten moduan, txistularien kale-jiragaz hasi zuten eguna; ondoren, meza nagusia egin zuten, eta gero hamaiketako. Eguna borobiltzeko, Berrio-Otxoa abesbatzak kantaldia egin zuen. Ospakizun-

nekin jarraitzeko, asteburuan esku pilota, pala eta frontenis txapelketetako finalak jokatuko dituzte frontoian. Horrez gainera, domeka goizean azoka ekologikoa ere egongo da, Elorrixa Ekologia Taldeak antolatuta. Nizeto Urkizu aparkalekuko postuetan, bisitarietokiko jaki eta bestelakoak izango dituzte erosgai.



Elorriarrek Berrio-Otxoa omendu dute.

Gremioen gida



Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com


anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

UZTAILEKO ZOZKETAK



Hotel Balneario Areatzan bi lagunentzako gaua, gosaria eta zirkuitu termala.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:

batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Traña-Matienako pediatria zerbitzuak egungo egoeran jarraitu dezake plaza inork aukeratu ezean

Egoera aldatzen ez bada, Abadiño-ko Udalak iragarri du elkarretaratze gehiago antolatuko duela irailerako

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

"Plazak hautatzeko prozesuan Traña-Matienako osasun zentroko pediatria plaza inork aukeratzen ez badu, egoerak berdin jarraituko du". Osakidetzako arduradunek mezu hori helarazi zioten Abadiño-ko Udalari, udalak berak jakinarazi duenez. Mikel Urrutia alkateak

eta Osakidetzaren Barrualde-Galdakao unitateko arduradunek bilera egin zuten ekaineko azken astean. Urrutiaren iritziz, Osakidetzak adierazitakoa ez da nahikoa. "Proposatzen digutena ezin dugu balekotzat jo, eta udal eskumena izan ez arren lanean jarraituko dugu zerbitzu duin bat izan arte, gure

herritarren ongizateak arduratzen gaituelako", adierazi du.

Traña-Matienako auzotarrak protestan irten dira ekaineko eguaztenetan, pediatria zerbitzua berrezarri dadin eskatzeko. Eta opor osterako egoera aldatzen ez bada, udalak mahai gainean ipini du elkarretaratze gehiago egiteko aukera. Edurne Maguregi alkateordeak adierazi duenez, ezin dute zain jarraitu. "Pediatraren falta kalte handia dabil eragiten zerbitzuan, eta, gure ustez, beharrezkoa da egoera hori iraultzea. Lanean eta mobilizatzen jarraituko dugu, harik eta herrian kalitatezko zerbitzua lortu arte", aurreratu du.

Traña-Matienako anbulatorioan beti eskaini izan da pediatria zerbitzua, Osakidetzak azaroan postua erretiratzea erabaki zuen arte.



Pediatría zerbitzua berrezartzea eskatzeko mobilizazio bat Traña-Matienan.

Emakume artisauen azoka, erromeria eta tortilla txapelketa Gazteluko jaietan

Eguaztenean hasi ziren auzoko jaiak ospatzen. Izan partxis txapelketa, izan auzo bazkaria, zapatuan hainbat ekitaldi egingo dute San Martin ermitaren bueltan

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Gazteluko bizilagunek auzoko jaietara bultzada berri bat emateko apustua egin zuten orain urte batzuk, eta aurtengo egitarauari erreparatuta begi bistan geratu da egindako ahaleginak fruituak eman dituela. Auzo txikia izanagaitik, egitarau osatu bat antolatu dute. Bihar umeentzako tailerrak (11:00), Abadiño-ko emakume artisauek eta sortzaileen azoka (11:00) eta harri jasotze erakustaldia izango dituzte (12:00). Horrez gainera, auzo bazkaria (14:00), trikitilariak, partxis txapelketa (15:30), tortilla txapelketa (20:00) eta Gauargi taldearen erromeria egongo dira (21:30). Domekan, Donien Atxa botata amaituko dituzte jaiak (20:00).



Gazteluko ermitan egindako ekitaldi bat.

Taxi-azune zerbitzua estreinatu dute Garain

Joan-etorri bakoitzaren prezioa 15 eurokoa da eta Garaiko Udalak 12 euroko diru laguntza emango die erabiltzaileei

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko herritarrek zerbitzu berri bat izango dute erabilgarri hemendik aurrera: Taxi-Auzunea. Udalak akordio bat lortu du Iurretako taxi gidari bategaz, eta horri eskerrak garaitarrak udalerriko edozein biztanlegunetatik joan ahal izango dira taxian, Traña-Matienara, Berrizera, Durangora edo Iurretara (eta alderantziz). Zerbitzua 07:30etik 20:00etara egongo da erabilgarri astelehenetik bari-

kura, eta 09:00etik 13:30era zapa-tuetan. Domeketan, jaiegunetan eta abuztuan ez da zerbitzurik emango. Taxi-Auzunea erabili gura duenak aurretiaz erreserbatu beharko du bidaia, taxi gidariagaz hartu-emanen ipinita (626 225 726 telefonoa). Zerbitzua erabili aurreko eguneko 19:00ak baino lehenago eskatu beharko dute herritarrek joan-etorria. Horrez gainera, aurretiazko zerbitzuak ere erreserbatu ahal izango dira,

baina kasu horietan taxi gidaria libre egon beharko da, eta zerbitzua emateko moduan.

Leku berera joateko helburuz zerbitzua erabiltzaile batek baino gehiagok eskatzen badu, orduan zerbitzua partekatu egingo dute. Erabilera partekatu horren muga ibilgailuak baimenduta duen gehieneko plazen kopurua izango da. Garaiko Udalak diruz lagunduko ditu herritarren joan-etorriak. Taxi gidariak eta udalak 15 euroan finkatu dute joan-etorri bakoitzaren prezioa, eta udalak 12 euroko diru laguntza emango die erabiltzaileei joan-etorri bakoitzeko. Horretarako, erabiltzaileek eskariak aurkeztu eta beharrezkoak diren inprimakiak bete beharko dituzte, udalean bertan edo Garaiko Udalaren web atarian.



Garaiko herrigunea.

Satxibuk antolaturiko udalekuetan 80 ume baino gehiago dabilta Mallabian

Ume eta gazterik gehienak Mallabikoak bertakoak dira



Umeen udalekuak ekainaren 24an hasi ziren eta uztailaren 19an amaituko dira.

MALLABIA • J.D.

Aste bi joan dira Mallabiko udalekuak hasi zirenetik, eta Satxibu aisialdi taldeko antolatzaileak pozik daude ekimena izaten ari den harreragaz. Aurten, 4tik 14 urtera arteko 56 ume dabilta udalekuetan; eskolan, pilotalekuan zein plazan egiten dituzte jarduerak. Ume horiei udaleku ibiltarian parte hartuko duten gazteak gehitu behar zaizkie. Ibiltarian, 16 urtera arteko beste 25 gazte parte hartuko dute. Beraz, 80 ume eta gaztetik gora dabilta aurten Satxiburen udalekuetan. Berriztik eta Ermutik ibiltarira doazen gazte gutxi batzuk kenduta, gainerako guztiak mallabitarrak direla nabarmendu dute aisialdi taldeko kideek.

Udaleku ibiltaria uztailaren 13tik 19ra izango da. Etoparik etapa eta herririk herri, Mallabia eta Mundaka lotuko dituzte. Hainbat jarduera dute aurreikusita; esaterako, Lekeition arraun surfa praktikatzeko asmoa dute.

Seme-alaben hezkuntzarako diru laguntza eskaria egiteko epea zabaldu dute Iurretan

Udalak 10.000 euro gorde ditu laguntzetarako; herritarrek uztailaren 15era bitartean dute aukera eskaria egiteko



Iurretako Maiztegi herri eskola.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Hautzaindegitik DBHko 4. mailara bitartean eskolatutako seme-alaben hezkuntza gastu orokorrak zati batean ordaintzeko helburuagaz, Iurretako Udalak eskaintako diru laguntza eskatzeko epea zabaldu dute, uztailaren 15era bitartean. 2023/2024 ikasturteko laguntzak bideratzeko, 10.000 euro daude gordeta.

Familia unitate bakoitzak eskaera bakarra tramitatu dezake, HAZen edo udaleko webgunearen bitartez. Eskaria egiteko Iurretan erroldatuta egon behar

da, 2023ko urtarrilaren 1eko antzinasunagaz. Eskatzaileak eta euren ardurapean dituzten eskolatutako seme-alabak edo adingabeak bizileku berean erroldatuta egon behar dira.

Laguntzarako diru kopurua familia unitatearen errentaren, seme-alaben edo ardurapeko adingabeen ikasketa mailaren, eta kide kopuruaren arabera zehaztuko da: Haurreskola (150 euro), HH (45 euro), LH osoa eta DBHko 1. eta 2. maila (45 euro), eta DBHko 3. eta 4. mailak (75 euro).

Iurretako enpresa proiektuen lehiaketa ipini dute martxan

Irabazleak 6.000 euro irabaziko ditu, proiektuari ekiteko; proposamenak urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herrigunean enpresa berrien sorrera sustatu gura duen Iurretako Enpresa Proiektuen XVI. Lehiaketa ipini du martxan udalak. Batez ere, aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen duten produktu, prozesu eta zerbitzuetan ideia berriak txertatzen dituzten enpresak sortzen lagundu gura du ekimenak. Era berean, herriko birgaitze komertziala sustatu gura du. Urriaren 31ra bitartean aurkeztu daitezke proiektuak udalean.

Proposamen irabazleak 6.000 euroko diru saria lortuko du, proiektua martxan ipintzeko. Jarduera hasi duela jakinaraztean, irabazleak sariaren %20 jasoko du udalaren eskutik, eta

jarduera garatzeko behar diren neurri zuzentzaileak aplikatu direla baieztatzerakoan, %50. Azken zatia jarduera hasi eta urtebetera emango zaio, enpresari eusten zaiola erakusten dituzten frogagiriak aurkeztu ondoren.

Udal ordezkariak azaldu dutenez, ekintzaile guztiak parte hartu dezakete. Beti ere Iurretako herrigunean kokatuko den enpresa proiektu bat badute, gehienez sei hilabetera martxan egongo dena. Besteak beste, proiektuaren deskribapen maila, originaltasuna eta kalitatea kontuan hartuko dira, bideragarritasun mailagaz batera. Bultzatzailea herrian erroldatuta dagoen ere kontuan hartuko da.

Hainbat euskal pilotarik uko egin diote Espainiagaz eta Frantziagaz aritzeari

Euskal Herriko selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatu dute Hendaian egindako agerraldian



Pilotariek Hendaiaiko Ugarte Beltzenia pilotalekuan egin zuten agerraldia, joan zen zapatuan.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriak Munduko Euskal Pilota Txapelketa berri bat hartuko du abuztu amaieran, 22 urtez azpikoa, Iruñean egingo dena. Euskal pilotariek Espainiako edo Frantziako selekzioekin jokatu behar dute, euskal selekzioa ez delako ofiziala. Baina hainbat pilotari ez daude hori egiteko prest, eta zapatuan agerraldia egin zuten Hendaiaiko pilotalekuan, Espainiako eta Frantziako selekzioei uko egiten dietela adierazteko. Baita euskal selekzioa aldarrikatzeko ere. Agerraldian eskualdeko pilotariak ere izan ziren, Asier Aspuru abadiñarra, esaterako. "Gu ez gara ez frantziarrak ez espainiarrak sentitzen, euskal herritarrak baizik. Bi selekzio horiei uko egitea erabaki dugula jakinarazten dugu", adierazi zuten.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Tokiko merkataritzaren aldeko apustua

Duela pare bat aste amaitu da aurtengo merkataritza-bonuen lehen kanpaina, eta bigarrena udazkenean izango da. Bertan 10.000 bonu jarri ziren salgai (9.937 saldu ziren), Durangoko 135 dendatan trukatu direnak. Horrelako kanpainak laguntza txiki bat dira tokiko merkataritzarentzat.

Joan den astean bertoko ostalaritzako gida bat ere aurkeztu genuen (Yum yum) eta Durangoko 23 establezimenduk parte hartu dute. Gida osoa 4 hizkuntzatan dago: gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesa. Bertan, establezimendu bakoitzaren espezialitateak eta prezioa aurkituko ditugu. Jakin badakigu bisitatzen gaituzten turista gehienak Madriloak, Kataluniakoak eta Andaluziakoak direla, freskuraren bila etortzen hasi direnak, eta gero frantsesak eta ingelesak daude; horregatik aukeratu dira hizkuntza horiek.

Egia da, halaber, azkenaldian betiko saltokiak pertsiana jaisten ari direla ikusten ari garela, errelebo faltagatik, eta hori oso kezagarria da. Durangon, merkatarien elkarte oso garrantzitsu eta indartsu bat dugu, urtean zehar jarduera asko egiten dituen eta merkataritza dinamizatzen duena, baina gu guztion laguntza ere behar duena. Tokiko merkataritzaren alde egin behar dugu, ezagutzen ditugun pertsonak direlako, eskaintzen diguten produktuen kalitateagatik, hurbileko tratuegatik...

Esan ohi dute ez zarela daukazunaz jabetzen galtzen duzun arte, baina espero dezagun ez dadila izan gure tokiko saltokien kasua. Babestu ditzagun guztiok!

Durungaldea asteen

Zornotzako umeez Bizkaiko Eskolarteko txapelketa irabazi dute

Zornotza | Bizkaiko pilota elkarteak, orokorrean, ez daude euren sasoirik onenean, baina badira salbuespenak. Zornotza da euren arteko bat. Lagun Onak taldean 90 ume eta gazte baino gehiago dago gaur egun, eta hazkunde hori emaitzetan ere igarri da. Zornotzarrek Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa irabazi dute oraintsu. Gernikan jokatu zuten finala, Markinaren kontra.



Udal Euskaltegiko poltsa konpostagarriak banatzeko makina Landako I eraikinaren sarrerara lekualdatu dute Durangon

Durango | Orain arte Udal Euskaltegian zegoen poltsa konpostagarriak banatzeko makina Landako I eraikinaren sarrerara lekualdatu dute. Halantxik jakinarazi dute Durangoko Udaletik. Izan ere, Bartolome Ertzilla musika eskola instalazio horietara lekualdatuko dute, aldi baterako; hain zuzen ere, teilatua berrizteko lanek irauten duten bitartean.



San Faustoko eta Tabirako komun publikoak, zabalik

Durango | Komun publiko berriak zabaldu dituzte Tabira eta San Fausto auzoetan. Lehenengoa Tabira parkearen eta Intxaurrendoko haurrentzako jolasgunearen arteko ibilbidean dago. Bigarrena Astolabideko ibilbidean, haurrentzako jolasguneetik gertu. "Durangarrak askotan ibiltzen diren eremuetan zerbitzuak eskaintzeko premiari erantzun guran" aukeratu dituzte komunitariko kokapenak. "Espazio eroso eta irisgarriak" eskaini gura izan dizkiete herritarrei. Udalak 135.278 euroko inbertsioa egin du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Durungaldean gremioekin,
zerikusia duen negoziarik baduzu,

IPINI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian




BURUARI KLIK!



ZENBATU ITZAZU

Zenbat daude dinosauro mota bakoitzetik?



LABIRINTOIA

HASIERA



HELMUGA

MARGOTU



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Uztailearen 5ean

ELORRIO musika
Tapia eta Leturia Band,
22:30ean, plazan.

ZORNOTZA sanpedroak
Lehiaketarako tortillen aurkezpena, 20:00etan, Boroan.
Umeen bolo txapelketa,
21:00etan.
Nagusien txapelketa,
22:00etan.
Joxe Mendizabal, 23:00etan.

Uztailearen 6an

ABADIÑO sanmartinak
Umeentzako tailerrak,
11:00etan, Gazteluan.
Abadiñoko emakume artisau eta sortzaileen azoka,
11:00etan.
Harri jasotze erakustaldia: Goizeder Abendibar, Urdax Magunazelaia eta Haritz Aranguren.
Partxis txapelketa, 15:30ean.
Tortilla txapelketa, 20:00etan.
Gauargi, 21:30ean.

BERRIZ sanpedro txiki
Donien Atxa jasotzea eta auzo afaria, San Pedro Txikin.

DURANGO bisita gidatua
'Durango historian zehar',
10:30ean (gaztelaniaz). Turismo Bulegoak eta Gerediagak antolatuta.

DURANGO antzerkia
'Dale Ramón' (Trapu Zaharra),
20:00etan, Aurora Abasolo parkean (euriagaz, Landako Gunean).

ELORRIO bisita gidatua.
'Zenita berdea', 11:00etan,
Turismo Bulegoan.

ELORRIO musika
Ojos de Brujoko Marinha,
22:30ean, elizpean.

IURRETA irteera
Bizikletan irteeta Markinara eta Lekoitzera, 08:00etan.
Iurreta Txirrindulari Elkarteak.

ZORNOTZA sanpedroak
Ehiza txakurren erakustaldia,
09:00etan, Boroan.
Umeen jolasak, 12:00etan.
Paella txapelketa, 14:00etan.

Mus txapelketa, 17:00etan.
Indar probak, 18:00etan.
Joxe Angel Naparra, gauerdian.

Uztailearen 7an

ABADIÑO sanmartinak
Donien Atxa botatzea eta errifen zozketa, 20:00etan.

BERRIZ sanpedro txiki
Meza, 12:30ean; San Pedro Txiki ermitan.
San Lorentzo dantza taldea.

ELORRIO azoka
XVIII. Azoka Ekologikoa,
10:00etan, aparkalekuan (Elorrixa ekologiko taldea).

ELORRIO bisita gidatua
'Zenita berdea', 11:00etan,
Turismo Bulegoan.

ELORRIO pailazoak
'Ez gara jaitsiko' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots),
19:00etan, elizpean.

IURRETA irteera
Bizikleta irteera Laukizera,
08:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.

ZORNOTZA sanpedroak
Triki karro potea, 10:00etan,
Boroan.
Bazkideen bazkaria,
14:00etan.
Zozketa, 19:00etan.

Uztailearen 7ra bitartean

DURANGO erakusketa
Vitoriano Perezen lanak,
Ezkurdi erakustaretoan.

Uztailearen 9an

ABADIÑO sankristobalak
Donien Atxa jasotzea
trikitariekin, 18:30ean,
Mendiolan.

Berakatz zopa, 21:00etan.
Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga bertsolariak.

Uztailearen 10ean

ABADIÑO sankristobalak
Meza, 11:00etan, Mendiolan.

Abadiñoko dantzariak,
12:00etan.
Gazta, oγια eta ardoa,
13:00etan.

Uztailearen 11n

BERRIZ antzerkia
'Wellcome and sorry' (Ganso&Cia), 17:00etan,
eskolako patioan.

DURANGO bingoa
Udako bingoa, 18:00etan,
Otamotzena parkean.

DURANGO musika
'Artze' (Hutsun + Jel Trio),
20:00etan, Platerueneko terrazan.

ELORRIO kontzertua
Sertx, 21:00etan, Portalekuan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Gru 4. Mi villano favorito**
barikua 5: 18:30 / 21:00
zapata 6: 16:45 / 19:15 / 21:30
domeka 7: 17:00 / 19:30
astelehena 8: 18:00 / 20:15
martitzena 9: 18:00 / 20:15
eguaztena 10: 19:00

• **Mala persona**
barikua 5: 18:30 / 21:00
zapata 6: 19:15 / 21:30
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 18:00 / 20:15
martitzena 9: 18:00 / 20:15
eguaztena 10: 19:00

• **Fuera de temporada**
barikua 5: 20:00
zapata 6: 19:00 / 21:30
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 19:30
martitzena 9: 19:30
eguaztena 10: 19:00

• **Del revés 2**
barikua 5: 18:00
zapata 6: 16:45 / 17:15
domeka 7: 17:30 / 18:00
astelehena 8: 17:30
martitzena 9: 17:30

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Horizon. An American saga. Chapter 1**
barikua 5: 20:00
zapata 6: 20:00
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:15

• **Pico de oro y sus amigos**
zapata 6: 17:00
domeka 7: 17:00

Zaldibarko jaiak 2024

Uztaileak 5, barikua

08:30 Familientzako mendi irteera, udaletzeko plazan hasita. Amaiturikoan, mokadua egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri kirolak Zaldua plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00 Apar festa, liburutegi aurrean.

18.00 Kuadrillen arteko txallengea, Txosnagunean.

18:30 Pilota partiduak.

19:00 ELEKTROKELA elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

22:30 Kontzertuak txosnagunean: BELAKO, TATXERS ETA MALAKIAS MX3.

23:00 Dantzaldia DJ Josemarigaz, udaletzeko plazan.

Uztaileak 6, zapata

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta helduentzat, Olazarko galerian.

11:00 JAIZALE Durangaldeko txistularien elkarteen kalejira.

12:00 Tortilla txapelketa, eskolako aterpean.

13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia, Olazarko galerian.

14:30 Herri bazkaria, txosnagunean.

16:00 3X3 saskibalo txapelketa, kiroldegian.

17:00 Kuadrillen arteko txallengea (FINAL HANDIA), txosnagunean.

19:00 MATRAKA elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa (1 €) eta sardinak (1 €).

23:00 DJ LANDER LUQUE eta DJ CANIJO Olea kalean.

23:30 ALTXA PORRU taldeagaz erromeria, txosnagunean.

Uztaileak 7, domeka

10:30 Antonio Gutierrez GUTI I. memoriale, Bizkaiko txirrindulari eskolen arteko proba: hasiberriak, kimuak eta haur kategorikoak. Hasiera, Autonomia kalean.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00. Umeen jolas parkea, eskolako patioan (euria eginez gero, kiroldegian).

11:00 Zaldibarko Koralak mezan abestuko du San Andres elizan, eta ondoren kontzertua emango du.

12:15 Euskal dantzak, Zaldua plazan.

19:00 Bertso saioa, Zaldua plazan. Etxahun Lekue, Oihana Bartra, Jon Maia eta Aissa Intxausti. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

20:30 "L J 75" kale antzerkia, udaletxe plazan (euria eginez gero, Olazar pilotalekuan).

22:00 Jaletako argazkien emanaldia, kontzertuen eszenatokian.

23:00 Su artifizialak.

Uztaileak 12, barikua

18:30 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa, liburutegi zaharrean.

Uztaileak 13, zapata

07:00 Zaldibarko XLV. mendi martxa, Zaldua plazan hasita. Amailu: udaletzeko plazan.

“Txalapartarekin askotan gertatzen den moduan, edo gutxitan edo inoiz ere ez da egin, eta, beraz, bide berriak ireki behar zaizkio”

Hutsun eta Jel Trio taldeek 'Artze' lana aurkeztuko dute Durangoko Uda Giro zikloaren barruan, uztaillaren 11n, 20:00etan; txalaparta eta jazz nahasten dute



Hutsun bikoteak eta Jel Trio taldeak indarrak batu dituzte.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Doinu eta sonoritate berriak ikertzeko asmoagaz hasi ziren batzen Jel Trioko Javier Lopez Jaso, Marcelo Eschich eta Juanma Urriza, eta Hutsun taldeko Mikel Urrutia eta Anai Gandra Uriz; jazz doinuen eta txalapartaren erritmoen batuketan hutsa baino gehiago eskaintzen dute euren proposamenen. ANBOTOK Gambragaz berba egin du.

Zelan edo non elkartu ziren txalapartari bikote bat eta jazz hirukote bat? Lagun batek elkarrekin zerbaitegiteko proposamena egin zigun bai guri bai Jel Triokoei. Ezezagunen antzera elkartu ginen kafetegi batean, eta hitz egiten hasi ginen, elkar ezagutzeko eta bakoitzaren musika ezagutzeko. Joaldi batzuk adostu, eta partitura batzuk pasatu genizkion elkarri, bakoitzak bere kabuz ikasteko. Horixe izan zen gure lehenengo pausoa. **2022an 'Artze' diskoa kaleratu zenuten. Buruan zenuten ordurako ala bidea egin ahala irten zen ideia?**

Maketa bat grabatu genuen lehenengo, eta horrekin kontzertu batzuk eman genituen, baina, egia esateko, ez genuen martxa handiegirik izan. Zenbait kontzertu eman genituen, baina egunerokotasunean ez genion indar gehiegirik eman proiektuari.

Artze anaiak presente daude lanean, baina disko osoa euren omenaldia dela esatea gehiegitxo dela esango nuke

Urte batzuk joan eta gero, disko bat goitik behera egitea pentsatu genuen. Gehiago entseatzeko hasi ginen, kontzertu gehiago ematen, eta Artze izeneko diskoa kaleratu genuen, baina ondorio bat izan zela esango nuke. Helburu han-

dirik gabe hasi ginen, elkarrekin jotzarren, baina gustura genbiltzanez eta proiektua interesgarria zela iruditzen zitzaigunez, diskoa grabatzea erabaki genuen. **Hasieratik izan zenuten Artze anaiak omentzeko gogoia?**

Diskoko bi joaldi Hutsunenak bakarrik dira. Horietako baten izena Artze da, eta joaldi horren helburua bazen Artze anaiei omenaldi xume bat egitea, txalapartaren munduan garrantzi handiko bi pertsona izan zirelako. Eta kanta horrek eman zion izena diskoari. Bere osotasunean ez da Artze anaiei egindako omenaldia, baina abestia bai. Lanean presente daudela esango nuke, baina diskoa Artzetarrei omenaldi bat dela esatea gehiegitxo da.

Behin diskoa kaleratuta, martxa gehiago igartzen duzue? Bai, 2022ko abenduan aurkeztu genuen diskoa eta iaz kontzertu dezente eman genuen. Eta aurten gutxiago izanda ere, baditugu

batzuk. Beasainen egon ginen uztaillaren 4an, eta Kataluniako Fira garrantzitsu batek gure proiektua han aurkezteko aukeratu gaitu. Proiektua aurrera doa, baina jazz zirkuituak bere mugak ditu eta ez da erraza kontzertu asko

Musika da bion hizkuntza, baina talde bakoitzak bere dialekto propioa du, eta batzuetan moldatu egin behar dira

izatea. Hala ere, pozik gaude, bai orokorrean proiektuarekin eta baita egin ditugun kontzertuekin ere. **Zer eskainiko duzue Durangoko kontzertuan?**

Zuzeneko diskoan oinarrituta dago, baina ez ditugu joaldi guztiak joko. Hala ere, diskoan agertzen ez diren kanta batzuek ezagutzeko aukera ere egongo da. Inprobisazioak ere egongo dira, eta soloak. Errepertorio aldetik, jazz estandarrak egongo dira, sor-kuntza propioak ere bai, guk taldean egindakoak. Joalditxo bat txalapartarekin bakarrik egingo dugu, eta beste bat Jel Trioko bakarrik. Ordubetan inguruko kontzertu atsegina emango dugulakoan gaude, kanta ezagunak eta ezezagunak osatua. Kontzertu anitza izango dela ere esango nuke, momentu batzuetan lasaia goa, eta beste batzuetan martxa gehiegokoa.

Urteak daramatzazue txalapartaren soina ikertzen, hainbat proiektutan murgilduta eta doinu desberdinekin lanean. Zelan moldatu zarete txalaparta jazzagaz nahasten?

Erronka handia izan da. Alde batetik, gu kalekumeak garela, eta musika munduan urte mordo egin arren eta esperientzia handia izan arren, gure esperientzia eta Jel Triorena erabat desberdinak direlako. Musika da bion hizkuntza, baina talde bakoitzak bere dialekto propioa du, eta batzuetan dialekto horiek moldatu egin behar dira. Eta, jakina, denbora dezente behar izan dugu elkar ondo ezagutzeko; alde batetik, guk jazzaren kodigoak ezagutzeko, eta eurek ere txalapartarenak ezagutzeko. Instrumentuaren aukerak eta duen zailtasuna ezagutzea behar genuen, eta moldaketa fase bat ere egin behar izan dugu. Hortxe egon da benetako erronka. Gauza batzuetan gu oso trebeak gara, baina beste batzuetan oso kaskarrak, eta Jel hirukoteari berdina gertatzen zaio, eurek ere alde on eta txarrak dituzte. Kontzeptu potente batean biak batzea ez zen erraza izan. Izerdi asko bota dugu, baina erronka lortu dugula esango nuke, eta hori oso berri ona da, jazz musikan txalaparta tresna izatea benetan delako pozgarria. Txalapartarekin askotan gertatzen den moduan, edo gutxitan edo inoiz ere ez da egin, eta, beraz, musika tresnari ere bide berriak ireki behar zaizkio sarritan. Txalaparta musika tresna gaztea da, 60 bat urteko garapena du alde horretatik, eta estilo desberdinetan garatzea garrantzitsua da, txalapartaren osasunaren adierazlea izango baita.



Tapia eta Leturia Band.

Gaur hasiko da Musikaire, Tapia eta Leturia Banden emanaldiagaz

Hamabi ekitaldik osatzen dute Musikaire jaialdiaren XXIV. edizioko egitaraua; Arespakotxaga lorategian eta Aldapebeitia atzean ere egingo dituzte emanaldiak aurten

MUSIKAIRE • A. M.

Hamabi emanaldigaz, Elorrioko zenbait txoko oholtza bihurtuko dira uztailean beste urte batez. Hain zuzen ere, gaur hasiko da Musikaire jaialdia, Tapia eta Leturia Band taldearen kontzertuagaz. 1984tik plazarik plaza ibili dira Joseba Tapia eta Xabier Berasaluze 'Leturia' trikitixaren doinuak zabalitzen eta doinu garaikideagoetara moldatzen; 22:30ean izango da

euren emanaldia. Bihar, zapatua, Ojos de Brujo talde entzutetsuko abeslari ohi Marinah-k abestuko du; 22:30ean izango da emanaldia. Katalanak runba eta flamenkoa reggaea, hip hop eta doinu kubatarrekin nahasten ditu, besteak beste. Asteburu amaitzeko, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Ez gara jaitsiko* ikuskizuna egingo dute domekan. Asteburu honetako emanaldiak plazan izango dira.

Musikairek agertokian emakume gehiago egotearen aldeko apustua egin du aurten, eta, besteak beste, Sara Azurzak eta Olaia Inziartek kontzertu bana emango dute. Eta bertako doinuez gainera, Lucero Paucar abeslariak gidatzen duen Hit La Rosa talde peruarrak dantza egiteko aukera emango du, eta HURyCAN bikotearen dantza garaikide emanaldiaz ere gozatu ahal izango dute Elorriora doazenean.

Toki berriak

Aurten, iazko moduan, plazako eta Lariz jauregiko emanaldiei eutsiko diete, baina, horiez gainera, Arespakotxaga lorategian eta Aldapebeitia jauregiaren atzeko aldean ere egingo dituzte kontzertuak.

Sei ikuskizunek osatzen dute Berriz Kulturaz Blai zikloa

Uztailearen 11n, eguena, Ganso & Cia konpainiak 'Welcome and sorry' antzezlanaz plazaratuko du, 17:00etan

ANTZERKIA • A. M.

Jaiak igarota, Berrizen hasiera eman diote Kulturaz Blai zikloari. Atzo, eguena, Bego Alabazan ipuin kontalariak *Liburuen magia* lana aurkeztu zuen. Beste bost ikuskizun egingo dituzte uztailean eta irailean; zikloak kale antzerkia, folklore ikuskizuna eta ipuin kontaketa izango ditu ardatz. Hurrengo Ganso & Cia konpainiaren *Welcome and sorry* izango da. Gorka Gansoren eta Cecilia Paganiniren lan berriak kaleko antzerkiaren barrenak erakusten ditu, hain

ohikoa duten klown estiloan. Uztailearen 18an ere Durangaldeko konpainia baten txanda izango da; hain zuzen ere, Bar Santi konpainiak *Lanean Jarraitu* 75 obra interpretatuko du, erre-tiroa ardatz duen komedia politikoa. Olakueta plazan izango da, 17:00etan. Uztaileko azken emanaldia Hungariako folklore talde batek egingo du, hilaren 23an.

Bestalde, irailean beste emanaldi bi egongo dira: Tomaxen eta Muxiren *Azken Festa*, eta Markeliñeren *Art-ilusio* ikuskizuna.



Ganso & Cia.

Gai librean

Isilaraziak XX

Summertime. Izenburu hori dauka Edward Hopperrek 1943an pintatutako koadroak. Udako egun bat hirian, asfaltoa eta etxebizitzaren hormak zuri ikusten dira eguzkiaren izpien poderioz. Haize apur batek zabalik dagoen leihoko gortina mugiarazten du, baina ezer gutxi gehiago. Etxeko atarian emakume ilegorri bat, soineko zuri batekin. Hormarekin mimetizatuz. Eguzkitik babesteko txapela darama. Uda usaina duen koadroa da, nahiz eta ohiko paisaia tropikalik ez ikusi. Hopperren sinadura diren lasaitasuna eta bakardadea ikusten dira.

Baina bakardade horretan beti pertsonaia bera azaltzen dela ez duzu inoiz ikusi? Nor zen emakume ilegorri hura? Bere koadroetako eszena desberdinetan (taberna bat, hoteleko logela bat, gaso-

lindegi bat, tren-kabina bat eta abar) emakume ilegorri bat azaltzen da. Bera Josephin Nivison da, Edward Hopperren emaztea. Eta ez hori bakarrik, bere musa eta bere arrakastaren arduraduna ere izan zen.

Hopperrekin ezkondu aurretik Nivison artista esanguratsua izan zen, erakusketak antolatzen zituen eta garaiko beste artista handiekin harremana zuen, besteak beste Man Rayrekin, Picassorekin edo Modiglianirekin. Beste emakume artista batzuen kasuan bezala, ezkontzearekin batera lan artistikoa alde batera utzi zuen, ez zuen margotzen jarraitu, eta, horren ordez, senarrari ematen zizkion ideiak, koadroen izenburuak, kontaktuak, erakusketak egiteko aukerak eta abar. Esan dezakegu Josephinek buruan zuen artelana Hopperren eskuek egiten zutela (eta batzuetan emaztearen eskuek ziur aski).

Ezkontzaren ondorengo urteetan, Nivisonen (ordutik Hopper) ez zuen lanik produzitu, eta bere presentzia koadroetako protagonista izatera mugatu zen. Bikotearen arteko harremana liskarrez beteta egon zen eta noizbait biolentzia fisikoa ere egon zen euren artean. Hala eta guztiz ere, senarraren heriotzara arte batera jarraitu zuten.

Josephinek egunerokoak idazten zituen eta hauei esker jakin ahal izan dugu nolakoa izan zen bere bizimodua eta Edwardengan izan zuen eragin artistikoa. Bere egunerokoan idatzirik utzi zuen bezala: "Tokirik badago baten-tzat bakarrik, orduan, zalantzarik gabe, toki hori beretzat izango da."

Udako eguzki errukigabearen aurrean dago Josephin, etxeko atariko zutabera lotuta. Aurrera begiratu. Konturatu gabe, galdua zuen tokia berreskuratuz.



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa



Maialen Bilbao Mugica
Frontenis jokalaria
DURANGO | 1997

“Durangon frontenis txapelketa bat antolatzeke asmoa dut irail-urri inguruan”

Kirol askotan ibilia, gaur egun frontenisa da Maialen Bilbao gehien asebetetzen duen kirola. Inguruotan ez dago emakumezko frontenis jokalaria askorik, eta, kirolari aupada bat eman guran, sanfausto bueltarako txapelketa bat antolatu gura du

FRONTENISA • JOSEBA DERTEANO

Maialen Bilbao kirolari petoa da, dabilen kirolean dabilela hobetzeko eta maila ona emateko berezko sena eta gaitasuna dituen horietarikoa. Horren adibide da frontenisa, bere kirol kutuna, gaur egun. Orain hiru urte txapelketetan parte hartzen hasi zenetik hona, gorakada handia izan du. Oraintsu buruz buruko nahiz binakako txapelak jantzi ditu Mallabian, maila handiko frontenis jokalaria batu dituen txapelketan.

Izan duzu inoiz hain asteburu boro-bilik zure kirol ibilbidean?

Ez, horrelako borobilik ez. Egia esanda, ez daramat denbora asko frontenis txapelketak lehiatzen; bi-hiru urte. Frontenisean txikitatik jokatu izan dut, lagun artean, baina txapelketetan ez. Mallabikoa izan da nire lehenengo torneo, eta interesa piztu zidan. Maila handia zegoela ikusi nuen eta horrek motibatu egin ninduen neure maila hobetzeko. Beti izan dut kirol berriak probatzeko zaletasuna.

Zure lehenengo txapela da?

Bai. Aurreko bietan txapeldu-norde geratu nintzen buruz burukoan. Hain zuzen ere, orain

bikote izan dudana Ana Garciaren kontra galdu nituen final biak. **Eta hirugarrenean txapela etxera!** Bai. Baina ez pentsa, urduri egon nintzen. Buruari buelta asko eman nion hirugarren finala jarraian galduko ote nuen. Zorionez, irabaztea lortu nuen. Binaka, oster, aurtan oso bikote ona osatu dugu Ana Garciak eta biok, eta horrek lasaitasuna eman dit neure onena emateko.

Mallabikoa ez da zure lorpen bakarra aurtan. Gaztela eta Leongo ligan bigarren aurrelaririk onena izan zara.

Lehenengoz parte hartu dut Gaztela eta Leongo frontenis ligan, eta bigarren geratzea sorpresa izan da; ez nuen hain ondo aritzerik espero. Entrenamenduetako lanak ekarritako saria izan da. Toki askotako jendeak parte hartzen du ligan: Zaragozakoak, Errioxakoak... Zozketa bidez aukeratzen da zein izango den zure bikotekidea. Beraz, atzelari askogaz jokatu dut, batzuetan ni baino esperientzia gutxiago dutenekin. Hilean txapelketa bat izan dugu, eta lorturiko emaitzaren arabera banatzen dira puntuak. **Gorakada handia izan duzu denbora gutxian. Zertan hobetu zenezake?**

Errebesean. Ezkertia naiz eta horma inguruko jokaldietan ondo ibil-

Lehenengoz parte hartu dut Gaztela eta Leongo ligan eta bigarren geratzea sorpresa izan da; ez nuen hain ondo aritzerik espero

tzen naiz, baina errebesagaz badut zer hobetu oraindino.

Zelakoa da frontenisaren panorama Euskal Herrian?

Egia esanda, ez dut frontenis jokalaria euskaldun askorik ezagutzen, ez emakumezkoarik ez gizonezkoarik. Kirol minoritarioa da. Frontenis klub bat Zierbenan dago eta aurtan han egin dut fitxa, Gaztela eta Leon-

go liga jokatu ahal izateko. Normalean Zallan entrenatzen naiz, Inge Sancristobal jokalariaigaz. Bera Zallakoa da eta aurtan hirugarren geratu da Mallabiko torneoan. Geure kabuz entrenatzen gara, Ingek ezagutzen duen jendeagaz.

Zer egin daiteke frontenisa indartzeke?

Frontenisean jende gehiago aritzeke, kirola ezagutarazi egin behar da. Durangon frontenis txapelketa bat antolatzeke asmoa dut, irail edo urri ingururako, jaien bueltarako. Frontenisa ezagutaraztea da helburua, emakumeena batez ere. Aitak sasoi bateko emakume erraketisten inguruan berba egin dit inoiz, eta ordukoaren moduko zeozer berreskuratzea gura nuke. Txapelketan maila mistoa egongo da, eta, beharbada, emakumeen txapelketa ere bai, emakume nahikoa apuntatzen bada. Mallabira joaten direnak Durangora ere etorriko lirakeela uste dut. Bestelako mailak ere egon daitezke; esaterako, maila bat Durangaldeko frontenis jokalarientzat.

Ibili zara beste kirolen batean?

Bai, eta banabil oraindino. Aurtan futbolekin ibili naiz, Basauriko Ariz taldean. Aurretik saskibaloian aritu naiz, Tabirako taldean, eta baita areto futbolekin ere; lehenengo, Sasikoan, eta ondoren, Santurtzi taldean. Bigarren Mailara igo ziren urtean eurekin jokatzeko eskaini zidaten, eta urtebete eman nuen han. Maila handia zegoen eta esperientzia gogorra izan zen, baina oso polita aldi berean.

Beraz, aurtan futbolekin eta frontenisean aritu zara. Bietan jarraitzeko asmoa duzu?

Ez dakit, duda asko daukat. Bali-teke aurtengoa azken urtea izatea futbolekin. Gaur egun frontenisak futbolak baino askoz ere gehiago motibatzen nau. Frontenisaren bitetik joko dudalakoan nago. Baina, tira, ondo pentsatu behar dut eta udan hartuko dut erabakia.



Erdian, Maialen Bilbao Mallabiko buruz buruko txapelagaz.



Gontzal Murgoitio zilarrezko dominagaz, Edgar Dumas txapeliduna eta hirugarren sailkatu den Ludovic Fernandez.

Gontzal Murgoitio domina bi irabazi ditu mendiko munduko txapelketan

Montenegron lehiatu da txapelketa. Murgoitio 23 urtez azpiko mailan lortu ditu dominak

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Gontzal Murgoitio (Elorrio, 2001) joan zen asteburuan lehiatu zuen azkenengoz 23 urtez azpiko munduko txapelketa. Domina batez itxi gura zuen bere bizitzako etapa hau, eta bete du helburua. Zilarrezko domina irabazi zuen mendiko lasterketan. Kilometro bertikalean, ostera, podiumaren atarian geratu zen: laugarren. Proba biak konbinatuta egiten den sailkapenean hirugarren geratu da: brontzezko domina.

Murgoitio "oso gustura" dago egindako lanagaz. Prestakuntza

gogorraren saria izan da. "Inoiz baino gehiago zaindu eta entrenatu naiz", onartu du. Aurtengoa hirugarren munduko txapelketa izan du eta bere onena eman duela uste du, aurreko bietan ez bezala.

Kilometro bertikalean bigarren joan zen probako zati handi batean, baina azken txanpan "beherakada" bat izan zuen eta aurkari bik gaititu zuten.

Domina eta sufrimendua

Mendi lasterketa ez du berehalakoan ahaztuko. Ez dominak ematen dion pozagaitik bakarrik, baita

asko sufritu zuelako ere. "Mendiko lasterketa batean sekula ez bezala sufritu nuen", esan du. Lau-bost kilometroko gailurreria tekniko batean den-dena eman zuen lasterketa bertan erabaki zitekeela irizita. Estrategia ondo irten zitzaion eta seigarren postutik lidertzara pasatu zen. Baina ahaleginak bere ondorioak izan zituen. Muskularki "desgaste handia" izan zuen eta azken kilometroetara "txikituta" heldu zen. "Bero itzela egiten zuen gainera, 35 bat gradu", gaineratu du. Edgar Dumas frantziarrak aurrreratu egin zuen azken txanpan.

Urkiola Trail Liga sortu dute parke naturaletik igarotzen diren Durangaldeko lasterketekin

Sorginen Lasterketa, Mañaritik Atxetara eta Aramotz mendi lasterketek osatuko dute liga sortu berria



Mañaritik Atxetara lasterketa irailaren 21ean izango da.

MENDIA • J.D.

Azkenaldian mendi lasterketek loraldia izan dute Durangaldean. Proba veteranoen berriak batu zaizkie herririk herri. Gertutasun eta aniztasun horregaz, denbora kontua zen elkarren arteko sinergiak sortzea. Lehenengo elkarlanak badu izena dagoeneko: Urkiola Kopa Trail.

Durangaldeko hiru mendi lasterketen artean sorturiko liga bat da: Sorginen Lasterketa (21 km), Mañaritik Atxetara (22 km) eta Aramotz mendi lasterketa (22 km). Hiru probetako antolatzaileak daude ekimenaren atzean. Ligako hiru lasterketek hainbat lotura

dute. Batetik, hirurak Urkiolako Parke Naturaletik igarotzen dira. Bestetik, hiru lasterketak hila-beteren barruan kontzentratzen dira: irailaren 14an Sorginen Lasterketa, irailaren 21ean Mañaritik Atxetara, eta urriaren 6an Aramotz mendi lasterketa.

Ligan parte hartzeko ez dago izen-emate berezirik egin beharrik. Nahikoa da proba bakoitzean izena emateagaz. Antolatzaileek hiru probetako emaitzak kontuan hartuko dituzte sailkapen orokor bat egiteko.

Antolatzaileek ez diote aterik izten etorkizunean Durangaldeko kopa bat sortzeari.

Jokaldia

Kirola euskararen arnagunea

Azken urteetan kezka handia sortu da eragile askoren artean euskararen erabileraren inguruan. Eskolan edo geletan, euskara formalaren irakaspena eta erabilera da hein handi batean bideratzen dena, eta gazteentzat esparru informala ere bideratu beharko genituzke.

Kirol elkarteek, erakundeek eta gurasoek norabide berdinean joateko ahalegina egin beharko lukete, baina bakoitzak bere ardurak hartuz. Hori horrela izanda, kirol erakundeek (Durango Rugby Taldeak kasu honetan) ezin dituzte gazteak ibilbide honetan partaide izan daitezen derrigortu; baina bai gonbitea egin. Euskararen bide zoragarri honek dituen onurak erakutsi, zabaldu, eta ibilbide honetan kirol elkarteak eta familiak eskutik helduta joanez gero,



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Durango Rugby Taldean aspalditik egin genuen euskararen aldeko hautua, batez ere Errugbi Eskolan

Euskararen indartzean gazteengan eragiten duten eragile guztiak aktibatzea ezinbestekoa da

umeak edo gazteak jasoko dituen onura zein fruitu guztiak: kirola euskaraz bizitzeko aukera zoragarria.

Durango Rugby Taldean aspalditik egin genuen euskararen aldeko hautua, batez ere Errugbi Eskolan. Argi genuen kirola eta balioak sustatzeaz gain, gurea ere bazela euskara bultzatu eta indar-

tzearen ardura. Gure hizkuntzak bizi duen egoera ikusita, agente aktiboak izan behar genuen, ez bakarrik komunikazio esparruetan, barneko funtzionamenduak ere bide berbera jarraitu behar zuen, eta lehen aipatu dudana bezala Errugbi Eskolak lehentasuna zuen.

Dударик gabe, euskararen zabaltze eta indartzean ume eta gazteengan eragiten duten arlo eta eragile guztiak aktibatzea ezinbestekoa da. Hortik doa, gaur egun, kirolak, eta gure kasuan DRTk duen erronka nagusietako bat, nola lortu gure eskaintza benetan euskaraz eta eraginkorra izatea euskararen normalizazio eta finkatze prozesu honetan. Hor dugu hurrengo urteetan landu beharreko esparrua, eta dudarik gabe kirol elkarteok bidelagun izan beharko ditugu erakundeak, gure kasuan federazioa, udala eta aldundia.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguésado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

IURRETA: ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **256.000 €-TIK AURRERA**

// AUKERA

MURUETA TORRE: 109 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela handia. Terraza. Ganbara eta garajea. **C.E.E=E 285.000 €**

ANBROSIO MEABE: Azkeneko pisua. 2 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. **C.E.E=E 280.000 €**

ABADIÑO: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Ikuspegi ederrak mendietara. **C.E.E=E 198.000 €**

IURRETA: 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 170.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ERROTARITXUENA: Erdi berria. 3 logela horma-armairuekin eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=D 359.000 €**

DURANGO: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea trastelekuarekin. **C.E.E=E 249.000 €**

DURANGO: Erdi berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. terraza handia. Hegoaldea. 2 kotxerentzako garajea eta 57 m²-ko trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E=A 285.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 195.000 €**

DURANGO: 120 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garaje zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 260.000 €/NEGOZIAGARRIA**

IBAIZABAL: Logela bakarreko apartamentua, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 220.000€**

BERRIZ: Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 353.000 €**

IURRETA: 114 m². 4 logela eta komuna. 2 terraza. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 246.000 €**

FRANZISKO IBARRA: 105 m². 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia. **C.E.E=E 329.000 €**

ASTXIKI: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ZALDIBAR: 85 m². 3 logela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 156.000 €**

// GARAJEAK SALGAI

ERDIALDEAN: Garajea. 13.000 €

J.M.ALTUNA: Garajea. 15.000 €

ALLUITZ: Garaje itxia. 23.000 €

// ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

PINONDO: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

BARRENKALEA: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politikak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO **58 m²**

3 logela

GASTEIZ ERREPIDEA: Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea). Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Leku onean kokatua, zonalde berdeak. ITE-a oraintsu pasatutakoa.

109.000 € C.E.E: D



DURANGO **45,96 m²**

logela 1

ALLUITZ: Halla, Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Zonalde lasaia, zonalde berdeak eta zerbitzугuneak gertu. Egoera onean. 3,71 m²-ko ganbara.

178.000 € C.E.E: E



DURANGO **117 m²**

4 logela

ANBROSIO MEABE: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea). Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuginak. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.

319.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO **93,77 m²**

3 logela

FRANZISKO IBARRA: 2.000. urtean eraikia. Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garaje itxia.

329.000 € C.E.E: E



ABADIÑO **96 m²**

4 logela

ALFREDO BAESCHLIN: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, despentsa eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Ikuspegiak. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. Berriztatzeko, banaketa berria egiteko aukerarekin. Apartamentua atariaren ondoan eta 14m²-ko lokala. Aisialdirako espazio komunitarioa. ITE-a pasatutakoa. Etxebizitza ez du derramarik zorretan.

154.000 € C.E.E: F



MATIENA **73 m²**

3 logela

TXINURRISOLO: Egongela-sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du, ipar-ekialde-hegoaldea. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuginetatik gertu. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez du berrikuntzarik behar.

169.000 € C.E.E: E

//BERRIAK DURANGO

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Ganbara. Iggogailua eta garajea. **379.000 € / E.EZ=B**

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Iggogailua. **175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERROTARITXUENA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Iggogailua. **359.000€ / E.E.Z=D**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//ABADIÑO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ELIXOSTE: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Iggogailua. **145.000 € / E.E.Z=F**

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

//PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 5 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 6 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

IRUATZA

09:00-13:30

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

DE DIEGO, INTXAURRONGO
22. - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 7 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 8 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO
ETORB. 2. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 9 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 10 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONGO
22. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUENA, 11 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEG 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZATEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozategia



Zorionak, **Inhar!** Etxeko txikiak 10 urte egin dauz gu konturatu barik, esku biak bete-bete, mutil handi! Musu potolo pilue etxeko danon partez, infinito maite zaittugu!



Gure **Luken** bihurri eta alaia! Zorionak zure lehen urtebetetzean. Patxo handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **Peio!** Uztailearen 4an 11 urte egingo dituzu. Oso ondo pasa eguna eta muxu handi bat familiako danon partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 15° / 21° ☁

ASTELEHENA ↓ 11° / 29° ☀

EGUAZTENA ↓ 16° / 24° ☁

DOMEKA ↓ 12° / 20° ☁

MARTITZENA ↓ 15° / 27° ☁

EGUENA ↓ 15° / 29° ☀



BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA




Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

"Herri txikietako dendek herritarren bizimodua erraztu behar dute"

Arantza Cilaurrenek Mañariko Dendaren ardura hartu du eta oso pozik dago izan duen harreragaz. "Ilusio handiz" heldu dio bere kabuz lan egiteko udalak eskaintako aukerari



Arantza Cilaurren Gumucio

Dendaria

GALDAKAO | 1962

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Hiru aste bete dira Mañariko Denda berriro zabaldu dutela. Durangon bizi den Arantza Cilaurren galdakoztarrak hartu du negozioaren ardura, eta sasoi bateko Rafa Harategia hartu du eredu legez. Beharizan handiko produktuak salduko ditu, gertuko ekoizleak lehenetsiko ditu eta harategia ere izango du.

Zelan ekin diozu bide berriari?

Oso pozik, neure saltsan. Beti gura izan dut neure kabuz lan egin, eta asko gustatzen zait jendeagaz egotea. Denda hartzea oso aukera ona iruditu zitzaidan; gainera, udalak

erraztasun guztiak eman dizkit. Urte asko egin dut ostalaritzan lanean, eta dendaria ere izan naiz. Mañariaren moduko herri txiki batean denda bat egotea beharrezkoa dela uste duzu?

Garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste dut.

Zein funtzio bete behar dute horrelako dendek?

Herritarren bizimodua erraztu behar dute. Herriko denda batek funtzio hori izan du beti, tratu pertsonala eman behar du eta funtzio integratzailea bete, kulturalki eta sozialki. Horixe da nire iritziz herriko denda baten oinarria. Bizitze-

“Dendak herriarena eta herritarrentzat izan behar duela uste dut, eta hortik abiatuta lan egin gura dut”

ko lain izatea, horixe baino ez dut gura, eta horrelako denda batek bete behar duen funtzioa betetzea, bestelako pretentziorik barik.

Hori duzu helburu?

Bai. Denda honek herriarena eta herritarrentzat izan behar duela

uste dut, eta hortik abiatuta lan egin gura dut. Uste dut horrela izan behar duela herri bateko edozein taberna edo komertzioan. Globalizazioaren eraginez, geroago eta komertzio gutxiago dago eta horrek eragina du herriaren bizitzan. Horrek pena handia ematen dit. Herriak hiltzen ari dira, globalizazioaren eta garatu diren politiken eraginez. Horren aurrean, hondar ale bat baino ez naizen arren, neure ekarpena egin gura dut.

Denda txikiak lagun edo ezagunen bilgune ere izaten dira.

Herri txiki batean iturria elkar-gune bat da. Eta denda bat ere bai. Azken batean, dendak eta tabernak sozializatzeko eta kolektibizatzeko tokiak dira.

Dendara datorrenak zer topatuko du?

Lehenengo eta behin, alaitasuna, arreta eta begirunea. Horren ostean, laguntasuna. Ahal dudan

“Ahalegin berezia egingo dut tokiko produktua eskaintzeko. Oso garrantzitsua deritzot horri”

neurrian, eskaturikoa ematen ahaleginduko naiz. Oinarrizko produktuak ditut dendan, Rafak egin zuen bidetik. Gainera, ahalegin berezia egingo dut tokiko produktua eskaintzeko. Oso garrantzitsua deritzot horri. Okela, inguruko abeltzainekin lan egiten duen Durangoko harategi batetik ekarriko dut. Eta barazkiak eskaintzeko ere, Mañariko nekazariekin lan egin gura dut. Apurka ikusten joango naiz, baina horixe da nire asmoa. Bertakoen premietara egokitu gura dut, eta ordutegia ere horren arabera izango da. Saltzea eta hemendik bizi ahal izatea dut helburu.

Dendako txoko batean joko didaktikoak ere ipiniko dituzu.

Bai, irakurtzeko materiala eta zurezko joko didaktikoak ipini gura ditut. Bezeroekin datozen umeei bertan egoteko aukera izan dezaten, adibidez. Hartara, teknologiarri apur bat aurre egiteko ere.

Lau-hortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria




Hiroo Onodaren sindromea


Bigarren Mundu Gerran Filipinetako Lubang irla txikira bidali zuten Hiroo Onoda inteligentziako ofizial japoniarra, Futamata komandoko beste hiru soldadugaz batera. Agindu zehatz bat eman zioten: bere postua defenda zezala heriotzeraino edo nagusi batek errenditzeko esan arte. Fin bete zuen mandatua. 1945ean gerra amaitu arren, Onoda ez zen albisteaz enteratu, eta borrokan jarraitu zuen beste 29 urtez. Antza denez, hegazkinetik eskuorriak jaurti zizkieten gerraren amaieraz abisatzeko; hala ere, amerikarren amarru bat zela begitandu zitzaizen Futamata komandoko gerrilariei eta ez zuten ezpata lurrera bota. Gero, ejerzito japoniarreko delegazioak hainbatetan joan ei ziren Lubangera, baina etsaiak zirelakoan ihes egiten zuten Onodak eta lagunek. 1950ean euretako bat errenditu egin zen, eta beste biak hil egin ziren geroago, poliziarekin eta arrantzaleekin izandako borroketan. Onodak gudan segitu zuen, oihanean barrena bizirauten, harik eta 1974an bere nagusi baten aurrean katan entregatu zuen arte.

Onodaren istorioaren berri izan, eta pentsatu dut gutako askok ere ez ote dugun Hiroo txiki bat barrenean. Zenbat luzatu ditugun gure bataila pertsonalak, sua eteteko abisuei kasurik egin barik! Emozioak nahastu ditugu molotov kokteletan, zubi berriak dinamitatu ditugu eta kamikazeak bagina lez immolatu gara. *Banzai!*

Bandera zuria altxatu eta norbere buruari amore emateko garai aparta izango da uda. *Arigato*, lagunok.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



iragarki laburrak .eus

Hemen eta online